

generorik gabeko etorkizuna

Eskualdeko Garapena Sustatzen Guztion Artean

1. zkia. 2010eko Martxo

Krisialditik atera



2009. urtea gogorra izan da lan mundurako. Milaka lanpostu suntsitu dira eta 2010. urteko lehenengo seihilekoan egoerak lehen bezain konplexua izaten jarraituko duela aurrez ikusi dute, baina iaz baino lanpostu gutxiago galduko dira eta era geldoagoan.

Gaur egungo krisialdi egoerak lan merkatuaren funtzionamendua bera ere aldatzea ekarri du. Langabezia dela eta, lanpostu bakoitza geroago eta pertsona gehiagok eskatzen du; hori dela eta, enpresek lanpostu hori betetzeko eskatzen dituzten baldintzak areagotu egin daitezke. Infojobs laneko web atariaren arabera, lan eskaintza bakoitzeko hautagai kopurua 3 aldiz gehitu zen iaz eta lan eskaintzak erdira murriztu ziren. Guzti honek murriztu egiten ditu prestakuntza gutxiago duten pertsonen lana topatzeko aukerak.



Lanpostu baterako hautagaien kopurua handia izateak enpresei eskubidea ematen die prestakuntza, lan esperientzia eta trebetasun gehiago eskatzeko. Krisialdi egoeratik kanpoko beste momentu batean ez lirateke eskatuko horrelako baldintzak. Gainera, 2009. urteari dagozkion Addecoren datuen arabera, lan berdinagatik soldataren %25 gutxiago kobratuko lukete. Arrazoi horregatik, pertsona batek aukeratzen duen prestakuntza espezifikoak inoiz baino garrantzia handiagoa du.

Aldi baterako lanen Randstad bezalako beste enpresa batzuek egindako ikerketen arabera, krisialditik irtengo diren lehenengo sektoreak izango dira energia, ingeniari-tza informatikoa eta automozioa; eta sektore horiek zerikusirik handia dute Debabarreneko enpresa askoran jarduerarekin. Adecco Professional aholkularitza enpresaren arabera, garapen jasangarriarekin eta eko-ingeniari-tzarekin lotutako lanbideak ere geroago eta eskatuagoak izango dira.



Bai Industriari!



DEBEGESAtik sustatutako eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kooperazio, Zuzenbide eta Berdintasun arloaren babesari esker, **"Bai Industriari"** kanpainan kokatutako ekintzekin hasten dugu urtea, eskualdeko enpresa eta prestakuntza zentroyen laguntzarekin. Iaz, 220 ikasle baino gehiago hurbildu ziren eskualdeko enpresen errealitatera; lortutako emaitzak oso pozgarriak izan ziren eta programaren ebaluaketa orokorra oso positiboa izan zen.

Aurreko urteetan bezala, **"Bai Industriari"** leloaren menpe antolatzen diren ekintzen helburua da pertsonak enpresa mundura erakartzea, baina, aurten, ikuspegi berri bat gehituko zaio kanpaina honi: DBHko 4.mailako ikasleen artean **lanbideen aukera ez sexista**

sustatzea, laneko orientazioa estereotipo sexistetatik aldentzen saiatuz eta pertsona bakoitzaren ahalmen eta gaitasunak izan daitezten lanbidea aukeratzeko orduan orientazio faktoreak.

Hau onuragarria izango da eskualde honetan bizi diren pertsona guztientzat; izan ere, gure inguruneke gaur egungo jardura eta garapen profesionalen errealitatea ezagututa, aurre egin ahal izango zaie aspaldiko aurreiritziei eta benetako bokazioa eta ahalmena duten gazteei proiektu profesionalak garatzeko aukerak erraztu, kalitatezko eta etorkizuna duten lanpostuak dituzten sektoreetan.

Generorik gabeko lanbide orientazioa sustatzea aurrera eramango da hainbat ekintzaren bitartez; besteak beste, 2010. urteko lehenengo hiruhilekoan Miramon Parke teknologikoan eta Debabarrenean kokatutako enpresa batzuetara hainbat **bisita** egingo dituzte, bai DBHko 4. mailako ikasleek, bai orientazioa lantzen duten profesionalak ere. Gainera, **Orientazio tailer** batzuk antolatuko dira aipatutako ikasleekin eta zentroetako orientatzaileekin; Lan Gida bat ere osatuko da eskualdeko zentroetako irakasleentzat.

Kontzeptu Garrantzitsu Batzuk



Ekintza positiboak: pertsona edo talde konkretuentzako planteatutako aldibaterako ekintzak, desberdintasun egoerei (sexu, arraza, erlijio eta beste arrazoiengatik) aurre egiteko helburua dutenak.

Oztopo ikusezinak: ohizko araei, baloreei eta espektatibeen ondorioz enpleguan parte hartzea oztopatzen duten jarrerak eta ondorioz, gizarteratze prozesuan.

Genero desberdintasunak: Tradizionalki emakumei eta gizonei ezarri zaizkien rol eta estereotipoen ondorioz dauden desberdintasunak.

Laneko zatiketa sexuala: emakume eta gizonen lan asignaketa desberdina sexuaren arabera. Tradizionalki, emakumeek etxeko lanak egin behar izan dituzte eta gizonek lan publikoak eta ekonomiarekin erlazionaturiko lanak.

Genero estereotipoak: emakumeek eta gizonek naturalki ezaugarri, balore, gustu, kezka, ... desberdinak dituztelako sinismena.

Genero rolak: kultura batek sexu desberdinei ezartzen dizkien lan eta ekintzak.

Lan merkatuko bereizketa: emakumeek eta gizonek era desberdinean "banatzen" dugu lana: emakumeak eginkizun batzuetara mugatuta daude (bereizketa horizontala) eta maila baxuagoetara (bereizketa bertikala).

Kristalezko sabaia: ikusezina den langa bat da, emakumeen garapen profesionala oztopatzen duena, poterea duten lanpostuetara edota ardura gehiagoko lanpostuetara heltzea galarazten duena eta gizonak nagusi diren egituradun erakundeetan sortzen direnak.

